Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	417.741,98	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	-7,85	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2+3):		8.351.557,39
5.- Saldo kobragaitzak:		1.968.748,94
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		0,00
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		6.382.808,45

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	-749.433,46
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-25.076,51
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	1.547.440,01
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	83.243,89
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	856.173,93

KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	2.526.428,08
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	2.050.271,69
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	4.576.699,77

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.



TXOSTENA

AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA

ARAUDI APLIKAGARRIA:

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- 9/2020 Foru Dekretu-Araua, azaroaren 10ekoa, Gipuzkoako toki entitateei aplikatzekoak diren ezohiko eta presazko finantza neurriei buruzkoa.

AZTERTUTAKO TRAMITEA: Zumaia Udalaren 2020ko aurrekontuaren likidazioa

FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)

1- ENTITATE ZERRENDA:

ZUMAIA
ZUMAIKO KIROL PATRONATUA

2- HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA

Aurrekontuen egonkortasuna

Zumaia Udalaren 2020ko aurrekontuaren likidazio espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek 817.720,49 euroko defizita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera. Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doiketarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko sarreraren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

UDAL SEKTORE PUBLIKOAREN AURREKONTU BATERATUA

1.- DIRUSARREREN AURREKONTU BATERATUA

KAP	IZENA	AURREKONTU PROPIOA	KIROL PATRONATUA	BATERATUTAKOAK GUZTIRA
1	Zuzenezko zergak	3.229.855,54	0,00	3.229.855,54
2	Zeharkako zergak	253.738,54	0,00	253.738,54



3	Tasak eta bestelako sarrerak	2.155.496,30	415.904,61	2.571.400,91
4	Trasferentzi arruntak - Kirol Patronatua	6.925.301,91	453.252,39 -438.000,00	6.940.554,30
5	Ondare sarrerak	54.103,71	0,00	54.103,71
6	Inbertsio errealeen besterenganatze	0,00	0,00	0,00
7	Kapital Transferentziak - Kirol Patronatua - Inbertsioak	233.798,60	29.785,00 -29.785,00	233.798,60
	GUZTIRA	12.852.294,60	898.942,00	13.283.451,60
		0,00	-467.785,00	

2.- GASTUEN AURREKONTU BATERATUA

KAP	IZENA	AURREKONTU PROPIOA	KIROL PATRONATUA	BATERATUTAKOIA GUZTIRA
1	Pertsonal gastuak	3.557.055,67	112.751,00	3.669.806,67
2	Ondasun arruntan eta zerbitzuen erosketak	5.330.039,74	808.526,11	6.138.565,85
3	Finantza gastuak	12.098,19	59,86	12.158,05
4	Transferentzi arruntak - Kirol Patronatua	1.983.950,01	127.652,87 -438.000,00	1.673.602,88
5	Kreditu globala eta bestelako ustekabeak	0,00	0,00	0,00
6	Inbertsio errealak	2.526.624,61	80.414,03	2.607.038,64
7	Kapitaleko transferentziak - Kirol Patronatua - Inbertsioak	29.785,00	0,00 -29.785,00	0,00
	GUZTIRA	13.439.553,22	1.129.403,87	14.101.172,09
		0,00	-467.785,00	

2020rako ezarritako helburua: 2.1. Gipuzkoako Foru Aldundiak udalei lagako die berari esleitutako defizit helburuaren %40. Ondorioz, udalarentzako defizit globaleko helburu hauek ezartzen dira: -0,12, zehazki, Zumaiko udalaren kasuan 1.070.256€-rainoko defizita izatea da. Beraz, ezarritako helburua betetzen da.

Finantzen iraunkortasuna

2020ko abenduaren 31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, 2020an likidatutako sarrera arruntan % 18,02 izango dela aurreikusten da. Jarraibidearen arabera, kalkulua egiteko 2020ko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketaren guztiengatik, ekitaldian exekutututako abalaren barne, eta horri gehituko zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta kenduko zaizkio ekitaldian itzultutako abalaren barne. Magnitude horretan ez dira kontuan hartuko Udalak Finantzatzeko Foru Fondoarengatik (UFFF) itzuli gabe gelditzen diren saldoak.



2020ko likidaziorako, ezohiko izaeraz, etenda uzten dira Gipuzkoako toki erakundeen arau fiskalak. Horrek esan nahi du aurrekontu egonkortasunaren, eta zor publikoaren helburuak eraginik gabe uztea, eta gastu araua ez aplikatzea urte honetan.

Zor bizia: %18,02.

Sarrera arruntak: 13.049.653.

Zorra, bankuetako maileguak: 1.209.116,10

Zorra mankomunitatearekin, Urtetako zabortejiaren kudeaketa: 671.385,33 (27.974,39*24).

IDAE mailegua: 471.538,17

2020/12/31rako zorra: 2.352.039,60

Gastuaren araua

2020ko aurrekontuko likidaziorako, ezohiko izaeraz, etenda uzten dira Gipuzkoako toki erakundeen arau fiskalak. Horrek esan nahi du aurrekontu egonkortasunaren, eta zor publikoaren helburuak eraginik gabe uztea, eta gastu araua ez aplikatzea urte honetan.

Hala ere, nahiz eta momentu honetan Zumaia Udalaren 2020ko aurrekontuaren likidazioren onarpena aztertzen gauden, kalkulatzera goaz:

Gastu konputagarria: 13.184.145,67.

2020.urteko likidaziorako gastu arauaren helburua etenda dago.

3- ONDORIOAK

Covid-19ak sortutako ezohiko egoera dela eta, 9/2020 Foru Dekretu-Araua onartu zen. Bertan 2020 eta 2021 urterako arau fiskalak etetea erabaki zen.

“9/2020 Foru Dekretu-Araua, azaroaren 10ekoa, Gipuzkoako toki entitateei aplikatzekoak diren ezohiko eta presazko finantza neurriei buruzkoa.

1.artikulua. Arau fiskalak etetea 2020an eta 2021ean.

*1.Ezohiko izaeraz, eta **2020rako eta 2021erako bakarrik**, etenda uzten dira Gipuzkoako toki erakundeen arau fiskalak. Horrek esan nahi du aurrekontu egonkortasunaren eta zor publikoaren helburuak eraginik gabe uztea, eta gastu araua ez aplikatzea urte horietan.*

...”

Bestalde, Foru Dekretu-Arau horren bidez, 2020 eta 2021 urteetarako udalei defizit helburuak ezarri zitzaizkien:

2.artikulua. Aurrekontu egonkortasuneko helburuak 2020 eta 2021erako.



Zumaia Udala

2021IAKU0004-A21/3417

1. Gipuzkoako Foru Aldundiak udalei lagako die berari esleitutako defizit helburuaren %40. Ondorioz, udalenzako defizit globaleko helburu hauek ezartzen dira: 2020: -0,12 eta 2021: -0,11.

2. Udalen banakako defiziteko helburua zehaztuko da lehen aipatutako defizit globala Udalak Finantzatzeko Foru Funtzaren kuoten proportzio berean banatuz.

...”

Zumaia Udalaren kasuan, 2020rako 1.070.256 eurorainoko defizita onartu zitzaion.

Hori kontuan izanda, Zumaia Udalaren 2020ko aurrekontu bateratuaren likidazio espedienteak aurrekontu egonkortasunerako ezarritako muga betetzen duela esan daiteke.

Nahiz eta ezarritako mugak bete, kontu-hartzaile honek argi eta garbi adierazi nahi du, 9/2020 Foru Dekretu-Arauean agertzen den bezala, bertan ezarritako neurriak **ezohiko izaeraz, eta 2020rako eta 2021erako bakarrik, etenda uzten direla**. Horrez gain, ez dugu ahaztu behar, oraindik ere Covid-19aren arazoak jarraitzen duela, eta datorren ekitaldian ere aurreikusi gabeko egoerei aurre egin behar izatea posible dela. Ondorioz, hemendik aurrera hartzen diren erabakiak kontu handiz hartu behar direla gogorarazi nahi du.

Zumaia,

Kontu-hartzailea

2020ko udalaren eta kirol patronatuaren likidazioen, eta 2020ko likidazioaren ondorengo egonkortasun txotenaren azalpena eta egin eta gero berri eman da geratzen da.-

3.- HIRIGINTZA –

3.1.- IRIZPENA.-

3.1.1.- ZUMAIKO BASUSTABIDEA 11KO FATXADA BIRGAITZEKO OBRARI, ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGAN %95EKO HOBARIA APLIKATZEA ONARTZEA BIDEZKO BADA.-

Gaia eztabaidatu ondoren bozketa egiten da honako emaitzarekin

Aldeko botoak: 9 boto (5 EH BILDU, 3 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Abstentzioak: 0

Kontrako botoak: 0

ERABAKIA: 1.- Zumaia Basustabidea 11ko fatxada birgaitzeko obrari, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan %95eko hobaria aplikatzea, onartzen da.



4.1.- IRIZPENA.-

4.1.1.- BERDINTASUN ARLOKO IKERKETA BEKA EMATEKO OINARRI BEREZIEI HASIERAKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.-

2021EKO APirilAREN 19KO BERDINTASUN, GAZTERIA, PARTE-HARTZE ETA ANIZTASUN BATZORDEAREN IRIZPENA, BERDINTASUN ARLOKO IKERKETA BEKA EMATEKO OINARRI BEREZIEI HASIERAKO ONARPENA EMATEKO

AURREKARIAK

1. Oinarri hauen helburua da Zumaia emakumeek historian zehar herriari egindako ekarpenak plazaratzeko ikerketa lana egiteko beka emateko arauak zehaztea.

Zumaia Udalak, ikerketa baliatuz, emakumeen ekarpena zer nolakoa izan den jaso nahi du, kontatu gabeko historia argitara eman, eta emakumeei zor zaien aitortza egin ahal izateko; Euskal Herriaren eta Zumaia historia berreskuratu eta berriatzi nahi da.

2. Zumaia Udalaren berdintasun politiken ardatz estrategikoetako bat da balio aldaketa bultzatzea sexuaren arabeko rola eta estereotipoak ezabatuta, baita emakumeen partaidetza eta eragin soziopolitiko sustatzea ere. Helburu horiek erdiesteko tresna garrantzitsua izan daiteke honako ikerketa beka.

3. Guzti honetan oinarrituta eta Zumaia Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III. Planeko 2.1.6. ekintzan jasotakoari jarraiki ("Emakumeak Zumaia historian" ikerketa beka baterako deialdia egitea), Zumaia Udaleko emakume eta gizonen Berdintasunerako sailak ikerketa beka emateko oinarri hauek osatu ditu.

4. Idazkaritzak txostena egin du oinarri horiek onartzeko prozedurari buruz.

IRIZPENA

Ondorioz, 2021eko apirilaren 19ko Berdintasun, Gazteria, Parte-hartzea eta Aniztasun batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde: Maider Alberdi (EH Bildu)
Jose mari Azkue (EH Bildu)
Ainhoa Illarramendi (EAJ)
Kristina Vicente (EAJ)

Aurka: inor ez
Abstentzioa: inor ez

Irizpen hau **BAIESTE** erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretu bidez onartutako Toki Erakunde Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoko Erregelamenduaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, eta, hala badagokio, Udalbatzaren Osoko Bilkuraren iritzipean jartzea. Udalbatzak, bere aldetik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47. Artikuluan araututakoari jarraituz, bertan dauden gehiengo sinple hartu behar du ERABAKIA:



Zumaia Udala

2021IAKU0004-A21/3417

1.- Berdintasun arloko ikerketa beka emateko oinarri bereziei hasierako onarpena ematea.

2.- Espedientea jendaurrean erakustea 30 lanegunez, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari ofizialean eta Udaleko iragarki-oholean argitaratzen den biharamunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko. Aipatutako epean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin behineko akordioa behin betikotzat hartua izango da, 7/1985 Legeko 49 artikulua araberako.

Zumaian, 2021eko apirilaren 19an

Maidor Alberdi Yeregi
Berdintasun zinegotzia

Azalpenak eman ondoren bozketa egin da honako emaitzarekin:

Aldeko botoak: 9 boto (5 EH BILDU, 3 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Abstentzioak: 0

Kontrako botoak: 0

ERABAKIA: 1.- Berdintasun arloko ikerketa beka emateko oinarri bereziei hasierako onarpena ematen da.

2.- Espedientea jendaurrean erakustea 30 lanegunez, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari ofizialean eta Udaleko iragarki-oholean argitaratzen den biharamunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko. Aipatutako epean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin behineko akordioa behin betikotzat hartua izango da, 7/1985 Legeko 49 artikulua araberako.

5.- KULTURA.-

5.1.- IRIZPENAK.-

5.1.- KULTUR ETA AISIALDI ALORREAN LAN EGITEN DUTEN ELKARTEEI DIRU LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIEI HASIERAKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.

2021EKO APirilAREN 14KO KULTUR BATZORDEAREN IRIZPENA, KULTUR ETA AISIALDI ALORREAN LAN EGITEN DUTEN ELKARTEEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIEI HASIERAKO ONARPENA EMATEKO

AURREKARIAK

1. Oinarri hauen xedea da Zumaia irabazi asmorik gabeko kultur elkarten urteko jardueraren garapena edo/eta egitasmo eta ekitaldi zehatzak garatu edo burutzeak sortzen duen defizita arintzeko emango diren diru laguntzak norgehiagoka erregimenean emateko prozedura arautzea.



Zumaia Udala

2021IAKU0004-A21/3417

Oinarri hauek arautzen dituzten laguntzak emango dira bai elkarteentzat beraiantzat, bai elkarte-jardueraren xede diren kolektiboentzat prestatutako berariazko programak edo zerbitzuak aurrera eramateko

2. Onuradunak: Kultura, artea eta aisialdiaren alorrean lan egiten duten eta irabazi asmorik gabekoak diren Zumaia Kultur elkarteak.

Babestuko diren asmoak ondorengoak izango dira: jarduera kulturalak sustatu eta hedatzeko programak edo ekintzak, kultur erakundeek prestatutako jarduera edo jaialdiak, folklorea, arte plastikoak, baita literatura, zientzia edo ikus entzunezko eta abarrekin zerikusia dutenak ere.

3. Idazkaritzak txostena egin du oinarri horiek onartzeko prozedurari buruz.

IRIZPENA

Ondorioz, 2021eko apirilaren 14ko Kultur batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde: 5 boto.

Aurka:

Abstentzioa:

Irizpen hau BAIESTEA erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretu bidez onartutako Toki Erakundearen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoko Erregelamenduaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, eta, hala badagokio, Udalbatzaren Osoko Bilkuraren iritzipean jartzea. Udalbatzak, bere aldetik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47. Artikuluan araututakoari jarraituz, bertan daudenen gehiengo sinplez hartu beharko du ERABAKIA:

1.- Kultur eta aisialdi alorrean lan egiten duten elkartei diru laguntzak emateko oinarri bereziei hasierako onarpena ematea.

2.- Espedientea jendaurrean erakustea 30 lanegunez, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari ofizialean eta Udaleko iragarki-oholean argitaratzen den biharamunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko. Aipatutako epean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin behineko akordioa behin betikotzat hartua izango da, 7/1985 Legeko 49 artikulua arabera.

Zumaian, 2021eko apirilaren 23an
Marina Bidasoro Arozena
Kultur zinegotzia

Kultur departamenduko gaiak azaldu ondoren irizpen guztiak jarraian bozkutzen dira emaitza honekin

Aldeko botoak: 9 boto (5 EH BILDU, 3 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Abstentzioak: 0

Kontrako botoak: 0



Zumaia Udala

2021IAKU0004-A21/3417

ERABAKIA: 1.- Kultur eta aisialdi alorrean lan egiten duten elkarteei diru laguntzak emateko oinarri bereziei hasierako onarpena ematen da.

2.- Espedientea jendaurrean erakustea 30 lanegunez, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari ofizialean eta Udaleko iragarki-oholean argitaratzen den biharamunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko. Aipatutako epean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin behineko akordioa behin betikotzat hartua izango da, 7/1985 Legeko 49 artikulua erabera.

Bigarren irizpena da,

5.2.- KULTUR ETA AISIALDI ALORREAN HERRIKO JAIEN ANTOLAKETAN LAN EGITEN DUTEN ELKARTEEI DIRU LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIEI HASIERAKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.

2021EKO APirilAREN 14KO KULTUR BATZORDEAREN IRIZPENA, KULTUR ETA AISIALDI ALORREAN HERRIKO JAIEN ANTOLAKETAN LAN EGITEN DUTEN ELKARTEEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIEI HASIERAKO ONARPENA EMATEKO

2021EKO APirilAREN 14KO KULTUR BATZORDEAREN IRIZPENA, KULTUR ETA AISIALDI ALORREAN HERRIKO JAIEN ANTOLAKETAN LAN EGITEN DUTEN ELKARTEEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIEI HASIERAKO ONARPENA EMATEKO

AURREKARIAK

1. Oinarri hauen xedea da herriko jaietarako, Zumaia irabazi asmorik gabeko kultur elkarten egitasmo edo ekitaldi zehatzak garatu edo burutzeak sortzen duen defizita arintzeko emango diren diru laguntzak norgehiagoka erregimenean emateko prozedura arautzea.

Ekitaldi hauek laguntza deialdiak zehaztuko duen epearen barne aurkeztu beharko dira, eta jai bakoitzaren data baino hilabete lehenago dokumentazioak osatuta egon beharko du.

Oinarri hauek arautzen dituzten laguntzak emango dira bai elkarteentzat beraiantzat, bai elkarte-jardueraren xede diren kolektiboentzat prestatutako berariazko programak edo zerbitzuak aurrera eramateko.

2. Onuradunak: Kultura, artea eta aisialdiaren alorrean lan egiten duten eta irabazi asmorik gabekoak diren Zumaia Kultur elkarteak.

Babestuko diren asmoak ondorengoak izango dira: jarduera kulturalak sustatu eta hedatzeko programak edo ekintzak, kultur erakundeek prestatutako jarduera edo jaialdiak, folklorea, herri kirolak, arte plastikoak, baita literatura, zientzia edo ikus entzunezko eta abarrekin zerikusia dutenak ere.

3. Idazkaritzak txostena egin du oinarri horiek onartzeko prozedurari buruz.

IRIZPENA



Zumaia Udala

Ondorioz, 2021eko apirilaren 14ko Kultur batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde: 5 boto.

Aurka:

Abstentzioa:

Irizpen hau BAIESTEA erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretu bidez onartutako Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoko Erregelamenduaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, eta, hala badagokio, Udalbatzaren Osoko Bilkuraren iritzipean jartzea. Udalbatzak, bere aldetik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47. Artikuluan araututakoari jarraituz, bertan daudenen gehiengo sinplez hartu beharko du ERABAKIA:

1.- Kultur eta aisialdi alorrean Herriko Jaien antolaketan lan egiten duten elkarteei diru laguntzak emateko oinarri bereziei hasierako onarpena ematea.

2.- Espedientea jendaurrean erakustea 30 lanegunez, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari ofizialean eta Udaleko iragarki-oholean argitaratzen den biharamunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko. Aipatutako epean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin behineko akordioa behin betikotzat hartua izango da, 7/1985 Legeko 49 artikulua arabera.

Zumaian, 2021eko apirilaren 23an
Marina Bidasoro Arozena
Kultur zinegotzia

Aldeko botoak: 9 boto (5 EH BILDU, 3 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Abstentzioak: 0

Kontrako botoak: 0

ERABAKIA: 1.- Kultur eta aisialdi alorrean Herriko Jaien antolaketan lan egiten duten elkarteei diru laguntzak emateko oinarri bereziei hasierako onarpena ematen da.

2.- Espedientea jendaurrean erakustea 30 lanegunez, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari ofizialean eta Udaleko iragarki-oholean argitaratzen den biharamunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko. Aipatutako epean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin behineko akordioa behin betikotzat hartua izango da, 7/1985 Legeko 49 artikulua arabera.

Hirugarren irizpena da:

5.3.- KULTUR ETA AISIALDI ALORREAN AUZOETAKO JAIEN ANTOLAKETAN LAN EGITEN DUTEN ELKARTEEI DIRU LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIEI HASIERAKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.



Zumaia Udala

2021IAKU0004-A21/3417

2021EKO APirilAREN 14KO KULTUR BATZORDEAREN IRIZPENA, KULTUR ETA AISIALDI ALORREAN AUZOETAKO JAIEN ANTOLAKETAN LAN EGITEN DUTEN ELKARTEEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIEI HASIERAKO ONARPENA EMATEKO

AURREKARIAK

1. Oinarri hauen xedea da Zumaiaiko auzoetako jaietarako, Zumaiaiko irabazi asmorik gabeko kultur elkarten egitasmo edo ekitaldi zehatzak garatu edo burutzeak sortzen duen defizita arintzeko emango diren diru laguntzak norgehiagoka erregimenean emateko prozedura arautzea.

Ekitaldi hauek laguntza deialdiak zehaztuko duen epearen barne aurkeztu beharko dira, eta jai bakoitzaren data baino hilabete lehenago dokumentazioak osatuta egon beharko du.

Oinarri hauek arautzen dituzten laguntzak emango dira bai elkarteentzat beraiantzat, bai elkarte-jardueraren xede diren kolektiboentzat prestatutako berariazko programak edo zerbitzuak aurrera eramateko.

2. Onuradunak: Zumaiaiko auzoetan bertako jaiak antolatzeko helburuz sortutako irabazi asmorik gabeko elkarteak. Tokian tokiko jai batzordea izango da urtean behin ospatzen den jai horien egitarauen arduraduna. Batzorde honen jardunean auzokoan parte hartzea bermatu beharko da, bilera irekiak eginez eta horren berri Kultur Batzordeari emanez.

Eta babestuko diren asmoak ondorengoak izango dira: auzo bakoitzeko jaien baitan, jarduera kulturalak sustatu eta hedatzeko programak edo ekintzak, kultur erakundeek prestatutako jarduera edo jaialdiak, folklorea, herri kirolak, arte plastikoak, baita literatura, zientzia edo ikus entzunezko eta abarrekin zerikusia dutenak ere

3. Idazkaritzak txostena egin du oinarri horiek onartzeko prozedurari buruz.

IRIZPENA

Ondorioz, 2021eko apirilaren 14ko Kultur batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde: 5 boto.

Aurka:

Abstentzioa:

Irizpen hau BAIESTEA erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretu bidez onartutako Toki Erakundearen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoko Erregelamenduaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, eta, hala badagokio, Udalbatzaren Osoko Bilkuraren iritzipean jartzea. Udalbatzak, bere aldetik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47. Artikuluan araututakoari jarraituz, bertan daudenen gehiengo sinplez hartu beharko du ERABAKIA:

1.- Kultur eta aisialdi alorrean Auzoetako Jaien antolaketan lan egiten duten elkartei diru laguntzak emateko oinarri bereziei hasierako onarpena ematea.



Zumaia Udala

2021IAKU0004-A21/3417

2.- Espedientea jendaurrean erakustea 30 lanegunez, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari ofizialean eta Udaleko iragarki-oholean argitaratzen den biharamunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko. Aipatutako epean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin behineko akordioa behin betikotzat hartua izango da, 7/1985 Legeko 49 artikulua araberako.

Zumaian, 2021eko apirilaren 23an

Marina Bidasoro Arozena
Kultur zinegotzia

Aldeko botoak: 9 boto (5 EH BILDU, 3 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Abstentzioak: 0

Kontrako botoak: 0

ERABAKIA: 1.- Kultur eta aisialdi alorrean Auzoetako Jaien antolaketa lan egiten duten elkarteei diru laguntzak emateko oinarri bereziei hasierako onarpena ematen da.

2.- Espedientea jendaurrean erakustea 30 lanegunez, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari ofizialean eta Udaleko iragarki-oholean argitaratzen den biharamunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko. Aipatutako epean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin behineko akordioa behin betikotzat hartua izango da, 7/1985 Legeko 49 artikulua araberako.

Azkenengo irizpena:

5.4.- MUSIKA, ANTZERKIA ETA DANTZAREN ALORRETAN LAN EGITEN DUTEN ELKARTEEI DIRU LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIEI HASIERAKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.

2021EKO APIRILAREN 14KO KULTUR BATZORDEAREN IRIZPENA, MUSIKA, ANTZERKIA ETA DANTZAREN ALORREAN LAN EGITEN DUTEN ELKARTEEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIEI HASIERAKO ONARPENA EMATEKO

AURREKARIAK

1.- Oinarri hauen xedea da musika, antzerkia eta dantzaren alorretan lan egiten duten Zumaia irabazi asmorik gabeko kultur elkarten urteko jardueraren do/eta egitasmo eta ekitaldi zehatzak garatu edo burutzeak sortzen duen defizita arintzeko emango diren diru laguntzak norgehiagoka erregimenean emateko prozedura arautzea.

Oinarri hauek arautzen dituzten laguntzak emango dira bai elkarteentzat beraiantzat, bai elkarte-jardueraren xede diren kolektiboentzat prestatutako berariazko programak edo zerbitzuak aurrera eramateko.



2.- Onuradunak: Musika, antzerkia eta dantzaren alorrean lan egiten duten eta irabazi asmorik gabekoak diren Zumaiaiko kultur elkarteak.

Eta babestuko diren asmoak ondorengoak izango dira: jarduerak sustatu eta hedatzeko programak edo ekintzak, jaialdiak, formakuntza, folklorea, grabazio nahiz ikus entzunezkoak, eta arte eszenikoekin zerikusia dutenak ere.

3.- Idazkaritzak txostena egin du oinarri horiek onartzeko prozedurari buruz.

IRIZPENA

Ondorioz, 2021eko apirilaren 14ko Kultur batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde: 5 boto.

Aurka:

Abstentzioa:

Irizpen hau BAIESTEA erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretu bidez onartutako Toki Erakundearen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoko Erregelamenduaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, eta, hala badagokio, Udalbatzaren Osoko Bilkuraren iritzipean jartzea. Udalbatzak, bere aldetik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47. Artikuluan araututakoari jarraituz, bertan dauden gehiengo sinplez hartu beharko du ERABAKIA:

1.- Musika, antzerkia eta dantzaren alorretan lan egiten duten elkarteei diru laguntzak emateko oinarri bereziei hasierako onarpena ematea.

2.- Espedientea jendaurrean erakustea 30 lanegunez, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari ofizialean eta Udaleko iragarki-oholean argitaratzen den biharamunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko. Aipatutako epean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztzen ez bada, behin behineko akordioa behin betikotzat hartua izango da, 7/1985 Legeko 49 artikulua arabera.

Zumaian, 2021eko apirilaren 23an

Marina Bidasoro Arozena
Kultur zinegotzia

Aldeko botoak: 9 boto (5 EH BILDU, 3 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Abstentzioak: 0

Kontrako botoak: 0

ERABAKIA: 1.- Musika, antzerkia eta dantzaren alorretan lan egiten duten elkarteei diru laguntzak emateko oinarri bereziei hasierako onarpena ematen da.

2.- Espedientea jendaurrean erakustea 30 lanegunez, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari ofizialean eta Udaleko iragarki-oholean argitaratzen den biharamunetik hasita, erreklamazioak eta



Zumaiako Udala

2021IAKU0004-A21/3417

iradokizunak aurkezteko. Aipatutako epean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin behineko akordioa behin betikotzat hartua izango da, 7/1985 Legeko 49 artikulua araberara.

Eta orain eskari-galderak tratatzen hasi baino lehenago, ondorengo gaia tratatu ala ez bozkatzen da

2021EKO APIRILAREN 15EKO PERTSONAL BATZORDEAN IRIZPENA EMAN ZEN, ZUMAIKO UDALEKO ETA ERAKUNDE AUTONOMOEN LANGILEEI APLIKAGARRIA DEN UDALHITZ-EN (TOKI ERAKUNDEETAKO LANGILEEN LAN BALDINTZAK ARAUTZEN DITUEN AKORDIOA) 95 ETA 96 ARTIKULUEK ZEHAZTEN DITUZTEN ERRETIRO AURRERATURAKO PIZGARRIEN ARAUDIAREN EGOKITZAPENAREN INGURUKOA.

Aldeko botoak: 9 boto (5 EH BILDU, 3 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Abstentzioak: 0

Kontrako botoak: 0

ERABAKIA: Gaia tratatzea erabakitzen da.-

Beraz, gaia tratatzen da,

2021EKO APIRILAREN 15EKO PERTSONAL BATZORDEAREN IRIZPENA ZUMAIKO UDALEKO ETA ERAKUNDE AUTONOMOEN LANGILEEI APLIKAGARRIA DEN UDALHITZ-EN (TOKI ERAKUNDEETAKO LANGILEEN LAN BALDINTZAK ARAUTZEN DITUEN AKORDIOA) 95 ETA 96 ARTIKULUEK ZEHAZTEN DITUZTEN ERRETIRO AURRERATURAKO PIZGARRIEN ARAUDIAREN EGOKITZAPENAREN INGURUKOA.

AURREKARIAK

1.- Zumaiako Udaleko Osoko Bilkurak 2008ko azaroaren 27an onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko toki erakundeetako langileen lan baldintzak arautzen dituen Akordioaren (Udalhitz) 95. eta 96. artikuluek funtzionarioen erretiro aurreraturako pizgarriak arautzen dituzte, eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Lege autonomikoan sartzen dira. Lege horrek, 30/1984 Legearen 21. xedapen gehigarrian jasotako gaikuntzari esker, 22.2 artikuluan aurreikusten du giza baliabideak arrazionalizatzeko programek beren baitan har dezaketela enplegu planetan aplikatu beharreko araudi orokorrean ezarritako neurri guztiak edo neurriren bat, bai eta borondatezko eszedentziarako eta erretirorako pizgarriak ere.

2.- Ildo beretik, urriaren 13ko 190/2004 Dekretuak, zeinaren bitartez euskal administrazio publikoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzen den, 41. artikuluan jasotzen ditu giza baliabideak arrazionalizatzeko programa Programa horietan, 42. artikulua araberara, borondatezko eszedentziarako eta erretiro aurreraturako pizgarriak eta zerbitzu aktiboari uko egiteko edo behin betiko baja emateko pizgarriak jaso ahal izango dira (i letra).

3.- EUDEL-ek udalei jakinarazi dienaren araberara, azken boladan zenbait sententzia egon dira erretiro aurreraturako pizgarriak baliogabetu dituztenak nolanchi ere, Auzitegi



Zumaia Udala

2021IAKU0004-A21/3417

Gorenaren iritziz, enplegu planetan (Euskal Autonomia Erkidegoko Arrazionalizazio Programetan) baino ezin direlako aurreikusi izaera horretako pizgarriak eta ondorioz, EUDEL-ek gomendatu die udalei, Udalhitz-ek 95 eta 96 artikuluetan arautakoa Arrazionalizazio Programa gisa egituratzeko tramitazioa egitea.

4.- Informazio guzti hori aztertu ondoren, egoki ikusi da araudia egokitzea eta horretarako tramitazioari ekin zaio.

5.- Arrazionalizazio programen edukiari dagokionez, 6/1989 Legean eta 190/2004 Dekretuaren bidez garatzen den Legean aurreikusitakoa bete behar da, eta besteak beste, ondorengo alderdiak jaso behar dira: aplikazio esparrua, indarraldia, hartu beharreko neurriak, betekizunak (esate batera, erakundean egindako urte kopurua..), neurrien arteko bateraezintasunak (esate baterako, abenduaren 14ko 1449/2018 Errege Dekretuan babestutako Udaltzaingoaren kolektiboa..), administrazio prozedura, eta aurrekontu erabilgarritasuna.

6.- Ezinbestekoa da Arrazionalizazio Programa langile ordezkariekin negoziatzea.

7.- Prozedurak eskatutako izapide guztiak beterik, egoki ikusi da, Arrazionalizazio Programaren onarpena Osoko Bilkuraren iritzipean jartzea.

IRIZPENA

Ondorioz, 2021eko apirilaren 15eko Pertsonal Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

ALDEKO BOZKA:

Asier Arakistain (EH-Bildu)
Arantza Gajate (EH-Bildu)
Iñaki Ostolaza (EH-Bildu)
Marikruz Alvarez (EAJ)
Iker Mardaras (EAJ)

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 22.2.i) eta 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo **PROPOSAMENA** egin da:

1.- Ondoren eransten den Zumaia Udaleko eta Zumaia Kirol Patronatuko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Plan Estrategikoa: Erretiro aurreratuari buruzko pizgarriak onartzea.

2.- Aipatutako Arrazionalizatzeko Programaren onarpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, dagozkion ondorioetarako.

Zumaian, 2021eko apirilaren 15ean.

Pertsonaleko batzordeburua. Asier Arakistain Alberdi



Ondoren bozkatzera pasatzen da

Aldeko botoak: 9 boto (5 EH BILDU, 3 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Abstentzioak: 0

Kontrako botoak: 0

ERABAKIA: 1.- Ondoren eransten den Zumaiako Udaleko eta Zumaiako Kirol Patronatuko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Plan Estrategikoa: Erretiro aurreratuari buruzko pizgarriak onartzen dira.

2.- Aipatutako Arrazionalizatzeko Programaren onarpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, dagozkion ondorioetarako.

Eta azkenengo mozioa aurkezten da, beraz hau ere bozkatzen da ea tratatu behar den edo ez

Aldeko botoak: 9 boto (5 EH BILDU, 3 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Abstentzioak: 0

Kontrako botoak: 0

ERABAKIA: Gaia tratatzea erabakitzen da.-

Mozioa irakurtzen da

HERRIAN PEDIATRA EUSKALDUNAK NAHI DITUGU

AZALPENEA

1a bi urte joan dira Zumaiako umeei euskaraz ez dakien pediatria bat daukatela. Ez Zumaiako haurrek soilik: arazo berbera dute Aizarnazabalgo, Zestoako eta Getariako umeei ere. Lanpostu horrek ezarria du bigarren hizkuntza eskakizuna, eta derrigortasuna du 2008ko ekainaren 1etik.

2019ko ekainean, lau herrietako alkateek gutuna bidali zuten Osakidetza, egoera konpontzeko eskatuz, gure herrietako umeen eta gurasoen hizkuntza eskubideak aintzat hartuta. Urte bereko uztailan, UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko teknikariek bilera izan zuten donostialdeko ESiko arduradunekin, eta hizpide izan zuten pediatria lanpostu hori: jakinarazi zieten 2020ko maiatzera arte egongo zela euskaraz ez dakien pediatria postu horretan. 1a urtea joan da aipatutako epe horretatik, eta gaur-gaurkoz egoera ez da aldatu: herritarren hizkuntza eskubideak urratzen ari dira, non eta hain inportantea den zerbitzu batean, norekin eta umeekin.

Jakin badakigu Osakidetza arazoak dituela mediku euskaldunak aurkitzeko, eta arazo horiek nabarmenagoak direla pediatrian. Erakundeen obligazioa da, ordea, herritarren eskubideak bermatzea. Zumaian, herritarren %71 euskaldunak dira, eta are gehiago umeen artean; adinagatik, gainera, asko ez dira gai gaztelaniaz komunikatzeko.



Zumaia Udala

2021IAKU0004-A21/3417

Nabarmena da, beraz, pediatria zerbitzuan euskaraz ez dakien profesional bat egoteak zer neurritan urratzen dituen hizkuntza eskubideak.

ERABAKIAK,

Hori ikusita, Udaleko Osoko Bilkurak erabaki hauek hartzeko eskatzen du mozioak:

1.- Udalak, Osakidetzari eskatze lehenbailehen zuzendu dezala herriko pediatria postuaren egoera, eta berma ditzala herritarren hizkuntza eskubideak.

2.- Udalak, Osakidetzari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzea jar ditzatela bideak zerbitzua euskaraz emateko gai diren profesionalak hezteko eta kontratatzeko: egiturazko neurriak har ditzatela mediku euskaldunen faltari aurre egiteko, unibertsitatetik hasita.

Eztabaidatu ondoren bozkatzen da:

Aldeko botoak: 5 boto (EH BILDU)

Abstentzioak: 4 boto (3 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Kontrako botoak: 0

ERABAKIA: 1.- "HERRIAN PEDIATRA EUSKALDUNAK NAHI DITUGU" aurkeztutako mozia onartzen da

2.- Udalak, Osakidetzari eskatze lehenbailehen zuzendu dezala herriko pediatria postuaren egoera, eta berma ditzala herritarren hizkuntza eskubideak.

3.- Udalak, Osakidetzari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzea jar ditzatela bideak zerbitzua euskaraz emateko gai diren profesionalak hezteko eta kontratatzeko: egiturazko neurriak har ditzatela mediku euskaldunen faltari aurre egiteko, unibertsitatetik hasita.

Azkenengo puntua:

6.- ESKARI – GALDERAK

Beraz, eskari – galderarik ez dagoenez,
Honekin amaiera ematen diogun egun honetako osoko bilkurari,



Zumaiako Udala

2021IAKU0004-A21/3417

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko seiak eta hogeita hamabost minutu direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria